



Europako  
finantzaketaren gida  
*gizarte erakundeentzat*

2018



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES



edefundazioa

*Argitalpen hau abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdiaren esparruan finantzatu da. Dekretu horrek arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak, esku-hartze sozialerako jakintza kudeatzeko jarduerentzat (2017ko abuztuaren 2ko EHAA, 146 zk.).*

**Finantzaketa egin duen erakundea:**

Eusko Jaurlaritzza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

**Egilea:**

EDE fundazioa

**Itzulpena:**

Saretik

Bilbo, 2018

## ÍNDICE:

SARRERA	1
EUROPA 2020 ESTRATEGIA	2
2014-2020 ALDIRAKO URTE ANITZEKO FINANTZ-ESPARRUA	4
NOLA IRAKURRI EU-GIDA?	6
-	
<b>1. HIRITARRAK</b>	<b>7</b>
HIRITARRAK EUROPA HIRITARREKIN	8
HIRITARRAK. GIZA ESKUBIDEAK ETA HIRITARRAK 2014-2020	11
<b>2. LURRALDE-LANKIDETZA</b>	<b>14</b>
EGEF. LURRALDE-LANKIDETZA 2014-2020	15
<b>3. KULTURA</b>	<b>18</b>
EUROPA SORTZAILEA PROGRAMA 2014-2020. MEDIA AZPIPROGRAMA	19
EUROPA SORTZAILEA PROGRAMA 2014-2020. KULTURA AZPIPROGRAMA	22
EUROPA SORTZAILEA PROGRAMA 2014-2020. SEKTORIE ARTEKO ATAL	24
<b>4. HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA KIROLA</b>	<b>27</b>
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA KIROLA. ERASMUS + PROGRAMA 2014-2020	28
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA KIROLA. ERASMUS + PROGRAMA 2014-2020. HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA	30
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA KIROLA. ERASMUS + PROGRAMA 2014-2020. GAZTERIA	34
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA KIROLA. ERASMUS + PROGRAMA 2014-2020. KIROLA	37
<b>5. ENPLEGUA</b>	<b>39</b>
EASI ENPLEGU ETA GIZARTE-BERRIKUNTZARAKO EUOPAR PROGRAMA 2014-2020	40
EUROPAKO GIZARTE-FUNTSA (EGF) 2014-2020	42
GAZTE-BERMERAKO FUNTSA 2014-2020	45
BALIABIDE GUTXIKO PERTSONENTZAKO LAGUNTZA-FUNTSA 2014-2020	47
GLOBALIZAZIORA EGOKITZEKO EUROPAKO FUNTSA	49
<b>6. BERRIKUNTZA ETA IKERKETA</b>	<b>51</b>
HORIZON 2020 PROGRAMA 2014-2020	52
<b>7. INGURUMENA</b>	<b>55</b>
LIFE INGURUMEN-PROGRAMA 2014-2020	56
EBko BABES ZIBILERA KO MEKANISMOA 2014-2020	60
<b>8. OSASUNA ETA KUNTSUMOA</b>	<b>62</b>
HAZKUNDERAKO OSASUN-PROGRAMA 2014-2020	63
KONTSUMITZAILEEN PROGRAMA 2014-2020	66

## SARRERA

Gida honek erantzuna eman nahi die gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeentzat funtsezkoak diren bi alderdiri.

Hasteko, Europar Batasuneko egungo Urte Anitzeko Finantza Esparruari (UAFE) buruzko laburpena jasotzea du helburu. Finantza-esparru horretan ezartzen dira 2014-2020 aldian mota orotako proiektuak finantzatuko dituzten Europako programak eta tresnak, betiere, Europa 2020 estrategian proposatzen diren helburuak lortzeko: hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea.

Bigarrenik, gida honek informazio eguneratua, sistematizatua eta hirugarren sektoreko erakundeen jardura eta beharretara bideratua eskaintzen du Europako zenbait programaren inguruan: programa horiek finantzaketa lortzen lagun diezaiekete erakundeei, eta, orokorrean, beraien proiektuak eta ekimenak garatzen; era berean, jardura-ildo berriak proposatzen lagun diezaiekete, edo esku hartzen duten kolektiboekin egiten duten lanean dituztenak finkatzen.


Egungo testuinguruan sektoreak finantzaketa-beharra du eta igo egin da baliabideak behar dituzten pertsonen eta erakundeen kopurua. Testuinguru horretan, eta hirugarren sektoreko erakundeek dituzten informazio-beharrak identifikaturik, argitalpen honen helburua da Europako finantzaketaren deialdien eta aukeren inguruko informazio osoa, laburtua eta ulertzeko erraza eskaintzea gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeei.

Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeentzat interes gehien duten Europako Erkidegoko programei buruzko sarrera bat egitea da helburua. Gizarte-eremurako interesgarrienak diren 2014-2020 aldirako Europako programa zentralizatuen azalpen zehatza eskaintzen du. Programa horietako bakoitzaren kasuan testuinguru labur bat eskaintzen da, eta, era berean, programaren helburuak, ildoak eta deialdietan lehentasuna duten eremuak. Era berean, informazio erabilgarria ere eskaintzen du, programa bakoitza hobeto ulertzeko ikastaroetarako.

## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

Europa 2020 Estrategia hamarkada honetako Europar Batasunaren hazkunde eta enpleguaren agenda da. Adierazten du hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzailea dela irtenbidea Europako ekonomiaren egiturazko gabeziak gainditzeko, haren lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko eta merkatu iraunkorrean oinarrituriko gizarte-ekonomiari eusteko.

Estrategiak bost arlotako helburuak proposatzen ditu:



Helburuak:

- Helburuek ikuspegi orokorra eskaintzen dute, adieraziz zein izan behar diren 2020an EBko funtsezko parametroak.
- Helburu nazionaletan gauzatzen dira, EBko herrialde bakoitzak ebaluatu ahal dezan xede bakoitza lortzeko egiten ari den aurrerapena.
- Kargak ez dira partekatzen: EBko herrialde guztientzako helburu komunak dira; nazioko eta Europako neurriak batuz lortu behar dira.
- Beraien artean lotuta daude eta elkar sustatzen dute.

Europa 2020 Estrategia erreferentziazko esparrua da EBko, nazioko eta eskualdeetako jarduerentzat. Estatu kideetako gobernuek EBko helburu orokorrak lortzen laguntzen duten helburu nazionalak ezarri dituzte, eta horri buruzko informazioa ematen dute beren urteroko Erreformen Programa Nazionaletan.

Europa 2020 Estrategiak zazpi ekimen nabarmen ezartzen ditu, helburu hauek errazago lortzeko:

- Baliabideak modu eraginkorren erabiltzen dituen Europa.
- Gizarte-koherioa eta lurralde-koherioa ahalbidetzen duen Europako esparrua.
- Kualifikazio eta enplegu berrien agenda.
- Industria-politika integratua, globalizazioaren garai honetarako.
- Europarako agenda digitala.



## 2014-2020 ALDIRAKO URTE ANITZEKO FINANTZ-ESPARRUA

2010ean onarturiko Europa 2020 Estrategiak, Europako herritarrek eta herrialdeek dituzten erronken garapenak eta 2007-2013 aldiko programen eraginari buruzko azterketek, programa berrien ikuspegian eta funtzionamenduan aldaketak sartzeko beharra iradoki zuten.

Berrikuntza nagusia administrazio- eta finantza-arloko sinplifikazioa da, Europako Batzordearen komunikazioan, 2014-2020 aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparrua sinplifikatzeko programa izenekoan, deskribatzen den bezala. Helburua da erakunde-mota guztiek izatea sarbidea Europako funtsetara, eta esku-hartzeari eta proiektuen garapenari baliabide gehiago eskaintzea eta kudeaketari gutxiago.

Urte Anitzeko Finantza Esparruak (UAFE), Europar Batasunaren urteko aurrekontu orokorren mugak ezartzen ditu. Zehazten du zenbat erabil dezakeen EBk urtean, guztira eta bere jarduera-eremu desberdinetan, juridikoki lotesleak diren betebeharrak hartzen dituenean gutxienez 5 urteko epean. Azken aldiko Urte Anitzeko Finantza Esparruek 7 urteko epea hartzen zuten orokorrean. Kontseiluak, Europako Parlamentuaren onarpena jaso ondoren, urte anitzeko finantza-esparruaren araudia onartu du.

UAFEn araudiak helburu hau du:

- EBko urteko aurrekontuaren onarpena erraztea.
- gutxienez bost urtekoa den aurrekontu-ziklo baten lehentasun politikoak zenbakiekin adieraztea
- EBko aurrekontu-diziplina bermatzea.
- EBko finantzak aurreikusteko gaitasuna areagotzea.

Sinplifikazio hori lortzeko helburuarekin, aldaketa batzuk proposatu dira.

- Programa-kopurua murriztu da. Aurreko aldian (2007-2013 aldian) 80 programa baino gehiago zeuden, eta horiek 22 programatan bildu dira.
- Helburuak eta lehentasunak gehiago mugatu dira. Programa berrien helburu nagusiak harreman estua du Europa 2020 Estrategiarekin; berariazko helburuak berriz, mugatuagoak dira eta emaitzetara bideratuagoak daude, adierazle argiagoekin.

- Emaitzetara bideratuta dago. Deialdietan lehentasunak gehiago zehazten direnez, eta adierazleak konkrituak direnez, lorturiko emaitzen justifikazioa bideratzen da, eginiko gastuen justifikazioaren ordez.
- Arauak bateratu egin dira. Finantza-arau komunak ezarri dira EBko programa guztientzat.
- Justifikatzea errazagoa da. Arau berriak malguagoak dira ordainketari dagokionez: erakundearen ohiko kontabilitate-jarraibideak onartuko dira, kostu bateratuak eta oroharreko ordainketak.
- Kontrolak ez dira hain zorrotzak. Ikuskaritzen eta kontrolaturiko erakundeen kopurua murriztea proposatzen da; hala ere, oraindik ere arreta berezia jartzen zaio iruzurra saihesteari eta kudeaketan gardentasuna sustatzeari.
- Eraginak eta gardentasunak garrantzia dute. Emaitzen zabalkuntzak eta gardentasunak garrantzi handiagoa dute irizpide gisa proposamenak baloratzerakoan.
- Enplegua da hazkundearen ardatza. Europa 2020 Estrategiaren lehentasun gisa ezarri da enplegua sortzea edo enplegu-politikak babestea, bereziki gazteentzat eta bazterkeria-arriskuan dauden taldeentzat eta/edo talde ahulentzat.





## **NOLA IRAKURRI EU-GIDA?**

EUgidak gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeentzat interesgarrienak diren Europako programak biltzen ditu, sistematikoki eta eskema moduan.

Programak gaien eta alfabetoaren arabera ordenatuta daude, eta bakoitzarentzat fitxa bat dago, informazio hauekin:

- Gaia (gure erakundeentzat interesgarrienak direnak aukeratzen dira).
- Deialdia egiten duen eta programa kudeatzen duen erakundea, harremanetarako datuekin.
- Programaren helburuak.
- Programaren deskribapen laburra.
- Programak finantzatzen dituen ekintzak.
- Laguntza-motak (fondo galdurako diru-laguntzak edo finantza-tresnak).
- Informazio gehiago (programari buruzko informazio gehiago lortzeko link interesgarriak)



**1** *Hiritarrak*

## HERRITARRAK EUROPA HERRITARREKIN

**GAIA:** Europa Herritarrentzat Programa 2014-2020.

---

### **ERAKUNDEA:**

Europako Batzordea  
Education, Audiovisual and Culture Executive Agency  
Unit P7 Citizenship  
Bour 135-139  
B-1049 BRUSELA  
[eacea-p7@ec.europa.eu](mailto:eacea-p7@ec.europa.eu)

Herritarrentzako Europako Gunea  
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa  
Kulturako Estatu Idazkaritza  
Plaza del Rey, 1. zk.  
28004 MADRIL  
91 701 74 66F  
[pec.cultura@mecd.es](mailto:pec.cultura@mecd.es)

---

### **HELBURUAK:**

Programaren helburua Europar Batasuna herritarrengana gerturatzea da, eta, zehazki, Batasuna, haren historia eta aniztasuna, ulertzen laguntzea; era berean, europar hiritartasuna sustatu nahi da eta herritarren partaidetza demokratikorako baldintzak hobetu.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Programak hiru atal ditu:

- Europaren memoria historikoa: zentzurik zabalenean, Europako kultura-aniztasunari eta balio komunei buruzko gogoeta sustatzen duten jardueri laguntza ematea, kontuan izanik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Europako historia modernoan izaniko erregimen totalitarioen arrazoiei buruzko gogoeta egiteko eta erregimen horien krimenen biktimei omenaldia egiteko ekimenen eskura funtsak jar daitezke.

Era berean, atal honetan sartu beharko dira Europako historia hurbilaren beste une erabakigarri batzuei eta erreferentziazko puntuei buruzko jarduerak. Lehenasuna ematen zaie, bereziki, tolerantzia, elkarren ezagupena, kulturen arteko elkarrizketa eta berradiskidetzea sustatzen dituzten ekintzei, horiek baitira iragana gainditu eta etorkizuna eraikitzekeo bitartekoak; ekintza horiek bereziki gazteenei zuzenduta egongo dira.

- Demokraziarekiko konpromisoa eta herritarren parte-hartzea: herritarrek parte hartzeko jarduerak zentzu zabalean ulertuta, eta Europako eremuan elkar ulertzea, kulturen arteko elkarrizketa, elkartasuna, konpromiso soziala eta boluntarioritza gauzatzeko baldintza egokiak sortzea ahalbidetzen duten proiektuak eta ekimenak. Gazteen partaidetza demokratikoa areagotzea da helburua, eta emakumeen partaidetza areagotzea erabaki politikoak eta ekonomikoak hartzerakoan.
- 
- Proiektuen emaitzak aztertu, zabaldu eta erabiltzearen arloko ekintza horizontalak. Emaitzak transferitzeko ahalmena sustatzen, inbertsioen etekina hobetzen eta esperientziaz ikasten laguntzen duten ekimenak.

---

## **EKINTZAK:**

### **Elkarrengandik ikastea eta lankidetzazko jarduerak**

- Herritarren arteko bilerak, hirien arteko senidetzeak, senidetutako hirien sareak.
- Nazioz gaindiko elkarteek ezarritako proiektuak.
- Europako dimentsioa duten memoria-proiektuak.
- Trukeak, besteak beste, informazio- eta komunikazio-teknologiak edo komunikabide sozialak erabiltzean oinarrituta.

### **Erakundeei emaniko egiturazko babesa:**

- Batasunerako interes orokorreko helburu bat xede duten erakundeak.
- Europa Herritarrekin programaren harremanetarako guneak.

### **Jarduera analitikoak Batasunaren esparruan.**

- Programaren helburuei buruzko gaien azterketak.

**Kontzientziatzeko eta zabalkuntzarako jarduerak, babesturiko ekimenen emaitzak erabiltzeko eta balioa emateko eta jardunbide egokiak aurkezteko:**

- Batasunaren esparruan eginiko ekintzak, adibidez hitzaldiak, oroimen-ekitaldiak eta sari-emate ekitaldiak.
- Homologoek eginiko ebaluazioak, adituen bilerak eta mintegiak.

### **INFORMAZIO GEHIAGO:**



# HERRITARRAK. GIZA ESKUBIDAK ETA HERRITARRAK 2014-2020

**GAIA:** Giza Eskubideak eta Herritarrak Programa 2014-2020

---

## **ERAKUNDEA:**

Europako Batzordea

Justizia, Askatasun eta Segurtasun ZN

E4 Unitatea. Finantza-laguntza LX-46 7/49 Bulegoa

Avenue du Bourget 1

B-1040 - Brusela

32-2-299 82 15

[JLS-Criminal-Record@ec.europa.eu](mailto:JLS-Criminal-Record@ec.europa.eu)

---

## **HELBURUAK:**

Programaren helburua elkarren aitortzan eta konfiantzan oinarrituriko Europako Justizia Espazioa garatzen jarraitzea da, batez ere arlo zibilean eta zigor-arloan lankidetza judiziala sustatuz.

Horretarako, helburu espezifiko hauek hartuko dira kontuan:

- Lankidetza judiziala erraztu eta babestea arlo zibilean eta zigor-arloan.
  - Prestakuntza judiziala babestu eta sustatzea; hemen sartuko da terminologia juridikoari buruzko hizkuntza-prestakuntza, kultura juridiko eta judizial komuna sustatzeko helburuarekin.
  - Modu eraginkorrean justizia denentzat eskuragarri izan dadila bermatzea; hemen sartuko da delituen biktimen eskubideak sustatu eta babestea, aldi berean defentsa-eskubideak errespetatuz.
  - Drogen arloko ekimenak babestea, lankidetza judizialaren arloan eta delinkuentzia prebenitzeari dagokionez.
-

## **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Programak balio erantsi europarra duten ekintzak finantzatu ditu. Ekintza batek duen balio erantsi europarra ebaluatzeko (eskala txikiko ekintzak eta nazio-eremukoak barne), irizpide hauek hartuko dira aintzat, besteak beste: ekintza horrek egiten dion ekarpena Europar Batasuneko Zuzenbidea modu sistematikoan eta koherentean ezartzeari eta Zuzenbide horretatik datozen eskubideen inguruan herritarrak orokorrean sentsibilizatzeari; eskaintzen dituen aukerak estatu kideen arteko konfiantza areagotzeko eta mugaz gaindiko lankidetzak hobetzeko; nazioz gaindiko eraginak; egiten duen ekarpena jardunbiderik egokienak zehaztu eta zabaltzeko; eta ekintza horrek eskaintzen duen aukera gutxieneko arauak, tresnak eta irtenbide praktikoak sortzen laguntzeko, modu horretan mugaz gaindiko izaera duten edo Batasun guztiari eragiten dioten erronkei aurre egiteko.

---

## **EKINTZAK:**

Jarduera analitikoak, adibidez datuak eta estatistikak jasotzea; metodologia komunak garatzea, eta, dagokionean, adierazle edo erreferentziazko parametro komunak garatzea; azterketa, ikerketa, analisi eta inkestak; ebaluazioak; gidak, txostenak eta hezkuntza-materiala egin eta argitaratzea; tailerrak, mintegiak, adituen bilerak eta hitzaldiak.

Prestakuntza-jarduerak, adibidez, langileen trukeak, tailerrak, mintegiak, prestatzaileen prestakuntza, barnean sartuz terminologia juridikoari buruzko hizkuntza-prestakuntza; eta lineako prestakuntzako tresnak edo beste mota batekoak garatzea epaileentzat eta justizia-administrazioaren zerbitzuko profesional edo langileentzat.

Elkarrengandik ikastea, lankidetzak, sentsibilizatzeak eta zabalkuntzarako jarduerak, adibidez jardunbide egoki, ikuspegi eta esperientzia berritzaileak identifikatu eta trukatzeko; homologoek eginiko berrikuspenak antolatzea eta elkarrengandik ikastea; hitzaldiak, mintegiak eta informazio-kanpainak antolatzea, barnean sartuz Batasunaren lehentasunezko politiken komunikazio instituzionala, programaren helburuekin zerkusia baldin badute; programa eta haren emaitzak zabaltzeko materiala bildu eta argitaratzea; informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen dituzten sistemak eta tresnak garatu, ustiatu eta mantentzea, barnean sartuz Justiziaren Europako Ataria hobeto garatzea, herritarrek justizia eskuragarriago izateko tresna gisa.

Laguntza ematea programaren helburuak lortzen laguntzen duten jarduerak (adibidez, Batasunaren Zuzenbidea eta politikak ezartzen estatu kideei laguntza emateko jarduerak) egiten dituzten eragile nagusiei; laguntza ematea Europako funtsezko eragileei eta Europako sare nagusiei, baita prestakuntza judizialaren inguruan ere; eta laguntza ematea Europan sareak sortzeko jardueri, erakunde eta entitate espezializatuen eta nazioko, eskualdeko eta tokiko agintarien eta gobernu kanpoko erakundeen artean.

### **INFORMAZIO GEHIAGO:**





2

## *Lurralde- lankidetz*

## EGEF. LURRALDE-LANKIDETZA 2014-2020

**GAIA:** Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF) 2014-2020

---

### **ERAKUNDEA:**

Ekonomia eta Ogasun Ministerioa

Erkidegoko Funts eta Lurralde Finantzazioaren ZN. EGEFa

Administratzeko IN.

Castellana Pasealekua, 162 - 19. solairua-039

28871 -Madril

34 91 583 52 24

[fondoscomunitarios@sepg.minhap-es](mailto:fondoscomunitarios@sepg.minhap-es)

---

### **HELBURUAK:**

EGEF funtsa Europar Batasuneko kohesio-politikaren zati da. EBko finantzaketa-iturri nagusia da garapen, produktibitate eta enpleguarekin loturiko desberdintasunak murrizteko. Haren helburua da eskualdeen arteko desoreka nagusiak murriztea, eskualdeko ekonomien garapena eta egituren egokitzapena babestuz, barnean sartuz beheraldian dauden industria-eskualdeen eta atzeratuen dauden eskualdeen birmoldaketa. Europako eskualde guztiek jasotzen dute EGEF funtsaren laguntza. Nazioko eta eskualdeetako agintariak beren programa operatiboak ezartzen dituzte, eta bertan aukeratzen dira zer proiektu finantzatu diren.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) eskualde-politikaren zenbait helburutan hartzen du parte; horietako bat Europako Lurralde Lankidetzaren da.

Europako Lurralde Lankidetzaren helburua da mugaz gaindiko lankidetzaren indartzea, tokiko eta eskualdeko ekimen bateratuen bidez; era berean, nazioz gaindiko lankidetzaren indartzea, helburu izanik lurralde-garapen integratua; eta eskualdeen arteko lankidetzaren eta esperientzien trukea. Erkidegoko INTERREG ekimenaren esperientzian oinarritzen da helburu hori.

Europako Lurralde Lankidetza hiru ildotan gara daiteke:

**Mugaz gaindiko lankidetza.** Mugaz gaindiko lankidetzari dagokionez, lankidetza horrek jarduera ekonomikoak, sozialak eta ingurumen-arlokoak indartuko ditu. Horretarako, lurralde-garapen iraunkorraren estrategia komunak erabiliko dira eta enpresa-izpiritua, turismoa, kultura eta mugaz gaindiko merkataritza sustatuko dira; ingurumenaren babesa eta kudeaketa bateratua hobetuko dira; hiri-guneen eta landa-guneen arteko loturak indartuko dira; isolamendua murriztuko da, garraio-, informazio- eta komunikazio-sare eta -zerbitzuetarako sarbidea hobetuz eta uraren, hondakinen kudeaketaren eta energiaren mugaz gaindiko sareetarako sarbidea hobetuz; lankidetza eta azpiegiturak modu partekatuan erabiltzea garatuko da.

**Nazioz gaindiko lankidetza.** Nazioz gaindiko lankidetzak lurralde-garapen integratua du helburu, eta lehentasun hauetan oinarritzen da: berrikuntza, ingurumena, irisgarritasuna eta hiri-garapen iraunkorra.

**Eskualde arteko lankidetza.** Eskualde arteko lankidetzak eskualde-politikaren eraginkortasuna indartzen du, Europako eskualdeen arteko lankidetzaren bidez. Lankidetza hauetan oinarritzen da: berrikuntza eta ezagutzaren ekonomia eta ingurumena; esperientzien trukea eta jardunbide egokiak zabaltzea; eta Erkidegoko garapen-ereduak ikertu eta aztertzea.

---

## **EKINTZAK:**

Mugaz gaindiko Lankidetza Programak:

- Espainia – Portugal.
- Espainia – Frantzia – Andorra.

Nazioz gaindiko Lankidetza Programak:

- Atlantikoko Gunea: Espainia, Frantzia, Irlanda, Portugal eta Erresuma Batuko eskualdeek osatzen dute.
- Europako Hego-Mendebaldea: Espainia, Frantzia eta Portugalek osatzen dute.
- Mediterraneo aldea: Zipre, Espainia, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Portugal, Erresuma Batua eta Eslovenia.
- Madeira-Azoreak-Kanariak.

Eskualde arteko lankidetzak eta Sareak: Programa bakar baten biltzen da Europar Batasun guztirako (INTERREG C) eta hiru Saretan: INTERACT, ESPON eta URBACT.

Auzotasun-tresna eta Europako Elkartea:

- Andaluzia - Maroko Iparraldea.
- Kanariak - Maroko Hegoaldea.
- Mediterraneo arroa.

## INFORMAZIO GEHIAGO:





# 3 *Kultura*

## EUROPA SORTZAILEA PROGRAMA 2014-2020. MEDIA AZPIPROGRAMA

**GAIA:** Europa Sortzailea Programa 2014-2020. MEDIA azpiprograma

---

### **ERAKUNDEA:**

Kultura Ministerioa. Idazkaritza Tekniko Nagusia  
Kultura Harremanetarako Gunea Espainian. Plaza del Rey, 1  
E-28004 Madril  
34 91 701 71 15  
[pcc.cultura@mcu.es](mailto:pcc.cultura@mcu.es)

---

### **HELBURUAK:**

Europa Sortzailea Programak, Europako esparruan ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sorkuntzaren sektoreak babestea eta sustatzea du xede.

Programaren helburua da ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sorkuntzaren arloko operadoreek Europa osoan lan egin dezaten eragitea, modu horretan beste herrialde batzuetan aukera berriak izan ditzaten eta aro digitalean beharrezkoak diren gaitasun berriak gara ditzaten. Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna babesteko helburua ere badu programak.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

MEDIA azpiprogramaren helburuak hauek dira:

- Europako ikus-entzunezkoen sektorearen gaitasuna areagotzea, nazioz gaindi lan egin dezan:  
Erraztasunak eskaintzea ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalek kualifikazioak eta gaitasunak eskuratu eta hobetzeko eta sareak garatzeko, horien barnean sartuz teknologia digitalen erabilera.

Europako ikus-entzunezkoen sektoreko operadoreen gaitasuna areagotzea, EB barnean eta hortik kanpo zabaltzeko aukera duten ikus-entzunezko obrak eta Europako eta nazioarteko koprodukzioak egin ditzaten; barnean sartzen dira telebista-etxeak.

Enpresen arteko trukeak sustatzea, enpresa-operadoreen sarbidea erraztuz, haien proiektuak ageriago egon daitezen EBko eta nazioarteko merkatuetan.

- Nazioz gairik gabeko zabalkuntza sustatzea:

Babesa ematea pelikulak aretoetan banatzeari, nazioz gairik gabeko marketinaren, marka-estrategiaren, banaketaren eta ikus-entzunezko obrak erakustearen bidez.

Nazioz gairik gabeko marketina, marka-estrategia eta ikus-entzunezko obraren banaketa sustatzea aretoak ez diren gainerako plataforma guztien bidez.

Ikusleen taldea garatzea, Europako ikus-entzunezko obren garapenerako interesa sustatzeko eta horietarako sarbidea erraztea, bereziki sustapena, ekitaldiak, zinematografiaren inguruko ezagupena eta jaialdiak erabiliz.

Banaketa-modu berriak sustatzea, enpresa-eredu berriak sor daitezela.

---

## **EKINTZAK:**

Prestakuntza-neurriak garatzea, ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalen kualifikazioak eta gaitasunak eskuratu eta hobetzeko.

Europa mailako ikus-entzunezko obrak egitea, bereziki pelikulak eta telebistako lanak, adibidez fikziozko obrak, dokumentalak eta haurren eta marrazki bizidunen pelikulak; era berean, obra interaktiboak egitea, adibidez, bideojokoak eta multimedia-obrak.

Europako ikus-entzunezkoen ekoizpen-enpresei babesa emateko jarduerak, bereziki ekoizpen-enpresa independenteei, ikus-entzunezko obraren Europako eta nazioarteko koprodukzioak bideratzeko.

Europako eta nazioarteko koprodukzioen bazkideek beren ahaleginak batu ditzaten eta/edo ikus-entzunezko obrak koproduzitzeko zeharkako laguntza eman dezaten bidea egiten duten jarduerak, programan parte hartzen duen herrialde batean dauden nazioarteko koprodukzioetako funtsak babestuz.

Ikus-entzunezko profesionalen erakustaldi eta merkatuetarako sarbidea erraztea, eta tresnak linean erabiltzeko bideak egitea Batasunaren barneko eta kanpoko enpresentzat.

Naziokoak ez diren Europako pelikulak banatzeko laguntza-sistemak ezartzea, aretoetan eta gainerako plataforma guztietan banatuz; eta salmentetako nazioarteko jarduerak egiteko laguntza-sistemak ezartzea, bereziki azpigituluak jartzea, bikoizketa eta ikus-entzunezko obren deskribapen akustikoa.

### **INFORMAZIO GEHIAGO:**





# EUROPA SORTZAILEA PROGRAMA 2014-2020. KULTURA AZPIPROGRAMA

**GAIA:** Europa Sortzailea Programa 2014-2020. KULTURA azpiprograma

---

## **ERAKUNDEA:**

Kultura Ministerioa. Idazkaritza Tekniko Nagusia  
Kultura Harremanetarako Gunea Espainian. Plaza del Rey, 1  
E-28004 Madril  
34 91 701 71 15  
[pcc.cultura@mcu.es](mailto:pcc.cultura@mcu.es)

---

## **HELBURUAK:**

Europa Sortzailea Programaren helburua da Europako esparruan ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sorkuntzaren sektoreak babestea eta sustatzea.

Programaren helburua da ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sorkuntzaren arloko operadoreek Europa osoan lan egin dezaten eragitea, modu horretan beste herrialde batzuetan aukera berriak izan ditzaten eta aro digitalean beharrezkoak diren gaitasun berriak gara ditzaten. Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna babesteko helburua ere badu programak.

---

## **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

KULTURA azpiprogramaren helburuak hauek dira:

- Kulturaren sektorea eta sorkuntzaren sektorea indartzea nazioz gaindi lan egiteko gaitasuna izan dezaten:
- Kulturaren eta sorkuntzaren arloko eragileei kualifikazioak, gaitasunak eta ezagupen teknikoak ematen dizkieten ekintzak babestea, horien bidez kulturaren eta sorkuntzaren sektoreak indartzeko.
- Kulturaren eta sorkuntzaren arloko eragileek nazioarteko lankidetzaz gauzatzeko eta beren karrera profesionaleri nazioarteko dimentsioa emateko ekintzak babestea.

- Laguntza ematea Europako kultura- eta sormen-erakundeak indartzeko eta nazioarteko sareak ezartzeko.
- Nazioz gaindiko zabalkuntza eta mugikortasuna sustatzea:
- Nazioarteko birak, ekitaldiak, erakustaldiak eta jaialdiak babestea.
- Europako literaturaren zabalkuntza babestea, ahalik eta jende gehienak izan dezan eskuragarri.
- Ikusleen taldea garatzea, Europako kultura-obrenganako eta sormen-obrenganako interesa pizteko eta horietarako sarbidea eta kultura-ondare material eta ez-materialerako sarbidea hobetzea.

---

## **EKINTZAK:**

Lankidetzaren arloko nazioz gaindiko proiektuak, hainbat herrialdetako kultura- eta sormen-erakundeak biltzen dituztenak, sektoreko edo sektore arteko jarduerak egiteko.

Hainbat herrialdetako kultura- eta sormen-erakundeen Europako sareen jarduerak.

Europar ikuspegia duten erakundeen jarduerak, talentu berrien garapena eragiteko eta kulturaren eta sorkuntzaren arloko eragileen nazioz gaindiko mugikortasuna eta obren zabalkuntza sustatzeko.

Literaturaren itzulpena eta ondorengo sustapena.

Europako kulturen aberastasuna eta aniztasuna ageriagoan jartzeko ekintza bereziak, adibidez, Batasunaren kultura-sariak emanaz, Kulturaren Europako Hiriburuak ekintzaren bidez eta Europako Ondarearen Zigiluari buruzko ekintzaren bidez.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**



## EUROPA SORTZAILEA PROGRAMA 2014-2020. SEKTORE ARTEKO ATALA

**GAIA:** Europa Sortzailea Programa 2014-2020. Sektore arteko atala

---

### **ERAKUNDEA:**

Kultura Ministerioa. Idazkaritza Tekniko Nagusia

Kultura Harremanetarako Gunea Espainian. Plaza del Rey, 1

E-28004 Madril

34 91 701 71 15

[pcc.cultura@mcu.es](mailto:pcc.cultura@mcu.es)

---

### **HELBURUAK:**

Europa Sortzailea Programaren helburua da Europako esparruan ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sorkuntzaren sektoreak babestea eta sustatzea.

Programaren helburua da ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sorkuntzaren arloko operadoreek Europa guztian lan egin dezaten eragitea, modu horretan beste herrialde batzuetan aukera berriak izan ditzaten eta aro digitalean beharrezkoak diren gaitasun berriak gara ditzaten. Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna babesteko helburua ere badu programak.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Sektore arteko atala bi zatitan banatuta dago:

Finantza-bermerako tresna bat, Inbertsioen Europako Funtsak kudeatua. 2016tik lanean hasteko helburuarekin, operadore txikiei maileguak eskuratzeko erraztasunak emango dizkie.

Nazioz gaindiko lankidetzaren politikoa; ikus-entzunezkoen sektorearen eta kultura/sorkuntzaren sektorearen arteko lankidetzaren sustatzen duten proposamenak babesteko ditu.

---

## **EKINTZAK:**

Programaren barnean sartzen dira ekintza hauek:

Kulturaren eta sorkuntzaren sektoreen bermerako tresna

Finantzaketa eskuratzeko erraztasunak ematea kulturaren eta sorkuntzaren sektoreetako ETE, mikroerakunde eta erakunde txiki eta ertainei.

Parte hartzen duten finantza-bitartekarien gaitasuna hobetzea, kulturaren eta sorkuntzaren sektoreetako ETEei eta mikroerakundeei eta erakunde txiki eta ertainei eta haien proiektuei loturiko arriskuak ebaluatzeko; barnean sartzen dira laguntza teknikoa ematea, ezagupenak sortzea eta sarean jartzeko neurriak.

Nazioz gaindiko lankidetzaren politikoa

Negozio- eta kudeaketa-eredu berrien inguruko esperientzien eta ezagupen espezializatuen nazioz gaindiko trukea, berdinen arteko ikaskuntza-jarduerak eta sareko lotura kultura- eta sormen-erakundeen eta arduradun politikoen artean, kulturaren eta sorkuntzaren sektoreak garatzeko.

Merkatuko datuak jasotzea, azterketak, lan-merkatuaren eta kualifikazioen arloko beharren azterketa, kulturaren arloko analisi estrategikoak nazioko eta Europako eskalan, eta inkesta estatistikoei babesa.

Kuota ordaintzea, Ikus-entzunezkoen Europako Behatokiaren parte izan dadin Batasuna, ikus-entzunezkoen sektorean datuak jaso eta aztertzea sustatzeko.

Enpresa-ikuspegi berrien eta sektore artekoen saiakuntza, finantzaketa, banaketa eta etekin ekonomikoari dagokienez.

Hitzaldiak, mintegiak eta elkarrizketa politikoa, kulturaren inguruko ezagupena eta ezagupen mediatikoa barne.

Europa Sortzailea programaren bulegoak.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**



# 4

## *Hezkuntza, prestakuntza eta kirola*

## HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA KIROLA. ERASMUS + PROGRAMA 2014-2020

**GAIA:** Hezkuntza, Prestakuntza eta Kirola. Erasmus + 2014-2020.

---

### **ERAKUNDEA:**

Heziketaren Nazioartekotzerako Espainiako Zerbitzua

(SEPIE)

General Oraa, 55

28066 Madril

34 915 506 718

[sepie@sepie.es](mailto:sepie@sepie.es)

Erasmus + Nazio Agentzia (INJUVE)

Ortega y Gasset, 71

28006 Madril

34 917 827 600

[informacioninjuve@injuve.es](mailto:informacioninjuve@injuve.es)

---

### **HELBURUAK:**

Erasmus + programa da hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolaren arloetarako EBko programa 2014-2020 aldirako.

Haren helburua herritarren garapena eta enplegu-aukerak sustatzea da. Ezagutzaren gizartean beharrezkoak diren hezkuntza, gaitasunak eta sormena eskaini behar dizkie Europak bere herritarrei.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Programak hiru aplikazio-esparru ditu:

Hezkuntza eta prestakuntza maila guztietan, etengabeko prestakuntza helburu izanik; barnean sartzen dira eskolako hezkuntza (Comenius), goi-mailako hezkuntza (Erasmus), nazioarteko goi-mailako hezkuntza (Erasmus Mundus), lanbide-heziketa eta -prestakuntza (Leonardo da Vinci) eta helduen ikaskuntza (Grundtvig).

Gazteria (Gazteria ekintzan), bereziki ikaskuntza ez-formala eta informala.

Kirola, bereziki oinarrizko kirola. Gainera, ikasleei emaniko maileguen bermerako mekanismo bat ezartzen da, finantza-bitartekariei berme partzialak eskainiko dizkiena maileguei dagokienez; mailegu horiek ahalik eta baldintzarik mesedegarrietan ematen zaizkie programaren barneko herrialde batean aitortuta dagoen goi-mailako hezkuntza-erakunde batean goi-mailako hezkuntzako bigarren ziklo bat (adibidez, master-titulu bat) egiten ari diren ikasleei.

---

### **EKINTZAK:**

Programaren aplikazio-eremu bakoitzerako, ekintza hauek egin ahal izango dira:

Pertsonen mugikortasuna.

Berrikuntzarako eta jardunbide egokiak partekatzeko lankidetzak.

Politiken berrikuntzari babesak.

### **INFORMAZIO GEHIAGO:**





## HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA KIROLA. ERASMUS + PROGRAMA 2014-2020. HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

**GAIA:** Hezkuntza, Prestakuntza eta Kirola. ERASMUS + programa  
2014-2020. Hezkuntza eta prestakuntzaren esparrua.

---

### **ERAKUNDEA:**

Heziketaren Nazioartekotzerako Espainiako Zerbitzua

General Oraa, 55

28066 Madril

34 915 506 718

[sepie@sepie.es](mailto:sepie@sepie.es)

---

### **HELBURUAK:**

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruan berariazko helburu  
hauek lortu nahi dira:

- Funtsezko trebetasun eta gaitasunen maila hobetzea, bereziki kontuan hartuz lan-merkatuarentzat duten egokitasuna eta gizarte-kohesioari egiten dioten ekarpena, bereziki, ikasketa-arrazoiengatik mugikortasun-aukerak areagotuz eta hezkuntzaren eta prestakuntzaren munduaren eta lan-munduaren arteko lankidetzaren indartzea.
  - Hezkuntza- eta prestakuntza-erakundeetan kalitatea, bikaintasuna, berrikuntza eta nazioartekotzea hobetzea, bereziki hezkuntza eta prestakuntzaren hornitzaileen eta beste interesdun batzuen arteko nazioz gaindikoa lankidetzaren areagotuz.
-



- Etengabeko ikaskuntzaren Europako esparrua sorraraztea, eta horri buruz sentsibilizatzeko ekintzak egitea. Esparru horren helburua izango da politiken berrikuntzak osatzea nazio-mailan eta hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen modernizazioa babestea. Bereziki politika desberdinetan lankidetzaren indartuz, Batasunaren tresnak hobeto erabiliz kualifikazioak aitortzeko eta gardentasunerako, eta jardunbide egokiak zabalduz.
- Hezkuntzaren eta prestakuntzaren nazioarteko alderdia indartzea, bereziki Batasuneko erakundearen eta kide diren herrialdeetako erakundearen arteko lankidetzaren bidez lanbide-heziketa eta -prestakuntzaren eta goi-mailako hezkuntzaren arloan, Europako goi-mailako hezkuntza-erakundearen erakargarritasuna areagotuz eta Batasunaren kanpoko ekintza babestuz, haren garapen-helburuak barne; horretarako, mugikortasuna eta Batasuneko eta kide diren herrialdeetako goi-mailako hezkuntzako erakundearen arteko lankidetzaren sustatuko da eta gaitasunak garatzeko jarduerak egingo dira kide diren herrialdeetan.
- Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzea eta hizkuntza-aniztasun zabala eta kultura arteko kontzientzia sustatzea.
- Europako integrazioari buruzko irakaskuntza- eta ikerketa-jardueretan bikaintasuna sustatzea, mundu osoan Jean Monnet jarduerak eginez.

---

## **EKINTZAK:**

### **Pertsonen mugikortasuna ikasketengatik**

Ikasleen mugikortasuna goi-mailako hezkuntzako ziklo guztietan, eta estudiantean, ikastun eta ikasleen mugikortasuna lanbide-heziketa eta -prestakuntzan. Mugikortasun hori izan daiteke erakunde elkartu batean ikasketak egitea, praktikak egitea edo ikastun, laguntzaile edo beka-dun gisa esperientzia hartzea beste herrialde batean.

Master-mailako mugikortasuna babestu ahal izango da, Maileguren Bermerako Europako Mekanismoaren bidez.

Langileen mugikortasuna programaren barneko herrialdeetan. Mugikortasuna izan daiteke irakaskuntzaren eta irakurletzen bidez, edo beste herrialde batzuetan lanbide-garapeneko jardueretan parte hartuz.

Ikasleen eta langileen nazioarteko mugimendua, kide diren herrialdeetara eta kide diren herrialdeetatik, goi-mailako hezkuntzaren arloan; barnean sartzen dira kalitate handiko titulazio bateratu, bikoitz edo ugaritatik antolaturiko mugikortasuna edo deialdi bateratuak.

### **Berrikuntzarako eta jardunbide egokiak partekatzeko lankidetzak**

Hezkuntza- eta prestakuntza-jardueretan edo horien inguruko beste sektore batzuetan parte hartzen duten erakundeen arteko elkarte estrategikoak; horien helburua izango da ekimen bateratuak garatu eta abian jartzea eta berdinen arteko ikaskuntza eta esperientzia-trukeak sustatzea.

Lan-munduaren eta hezkuntzako eta prestakuntzako erakundeen arteko elkarteak: Ezagutzarako itunak, bereziki goi-mailako hezkuntza-erakundeen eta lan-munduaren artean; sektore-eskumenetarako itunak hezkuntza eta prestakuntzaren hornitzaileen eta lan-munduaren artean.

Informatikaren arloko laguntza emateko plataformak, hezkuntzaren eta prestakuntzaren sektore osoa hartuko dutenak, bereziki senidetze birtuala (eTwinning).

### **Politiken berrikuntzari babesa**

Batasunaren agenda politikoa ezartzea hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan; era berean, Boloniako eta Kopenhageko prozesuak ezartzea.

Kualifikazioak aitortzeko eta gardentasunerako Batasuneko tresnak ezartzea programaren barneko herrialdeetan, bereziki Kualifikazio eta Gaitasunen Gardentasunerako Batasuneko Esparru Bakarra (Europass), Kualifikazioen Europako Esparrua (KEE), Kredituak Metatzeko eta Transferitzeko Europako Sistema (ECTS) eta antzeko mekanismoak.

Politikei buruzko elkarrizketa Europako alderdi interesdunekin, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan.

Ikasketen Onarpenari buruzko Informazio Zentro Nazionalak (NARIC), Eurydice eta Euroguidance sareak, eta Europass zentro nazionalak.

### **Jean Monnet jarduera espezifikoak**

Europako integrazioari buruzko irakaskuntza eta ikerketa sustatzea mundu osoan, akademiko espezializatuen, ikasleen eta herritarren artean, bereziki Jean Monnet katedrak sortuz eta beste jarduera akademiko batzuk eginez.

Europako integrazioari buruzko ikasketetan dabilen erakunde akademikoen edo elkarte aktiboen jarduerak babestea, eta, era berean, bikaintasunaren Jean Monnet bereizgarria babestea.

Europako intereseko helburu bat lortu nahi duten erakundeei babesa ematea.

Politikei buruzko eztabaida eta mundu akademikoaren eta arduradun politikoen arteko harremanak sustatzea Batasuneko politiken lehentasunen inguruan.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**



## HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA KIROLA. ERASMUS + PROGRAMA 2014-2020. GAZTERIA

**GAIA:** Hezkuntza, Prestakuntza eta Kirola. Erasmus + programa 2014-2020. Gazteria.

---

### **ERAKUNDEA:**

Erasmus + Nazio Agentzia (INJUVE)

Ortega y Gasset, 71

28006 Madril

34 917 827 600

[informacioninjuve@injuve.es](mailto:informacioninjuve@injuve.es)

---

### **HELBURUAK:**

Gazteen esparruan berariazko helburu hauek lortu nahi dira:

- Gazteen ahalmenen eta funtsezko gaitasunen maila hobetzea (aukera gutxien dituztenak ere kontuan izanik), eta haien partaidetza sustatzea Europako bizitza demokratikoan eta lan-merkatuan, hiritartasun aktiboan, kulturen arteko elkarrizketan, gizarteratzean eta elkartasunean; hori lortzeko, mugikortasunerako aukerak areagotuko dira bereziki, ikasteko helburuarekin, gazteentzat, gazteen arloan edo gazte-erakundeetan lan egiten duten pertsonentzat eta gazte liderentzat, eta gazteen eta lan-merkatuaren arteko loturak indartuko dira.
  - Lanaren kalitatean hobekuntzak sustatzea gazteen arloan, bereziki gazteen arloko erakundeen eta interesdun beste alderdi batzuen artean lankidetzak handiagoa bideratuz.
-



- Politiken berrikuntzak osatzea tokiko, eskualdeko eta nazioko esparruetan, eta sustatzea ezagupenean eta esperientzian oinarrituriko gazteen politikaren garapena, bai eta ikaskuntza ez-formalaren eta informalaren aitorpena ere, bereziki politiketan elkarlan handiagoa bideratuz, aitorpenerako eta gardentasunerako Batasuneko tresnak hobeto erabiliz eta jardunbide egokiak zabalduz.
- Gazteen jardueren nazioarteko alderdia eta gazteen arloko langileen eta erakundeen zeregina indartzea, gazteei laguntza emateko egiturak direnez Batasunaren kanpoko ekintza osatuz; horretarako, bereziki mugikortasuna eta Batasunaren eta kide diren herrialdeetako alderdi interesdunen eta nazioarteko erakundeen arteko lankidetzak sustatuko da eta kide diren herrialdeetan berariazko gaikuntza gauzatuko da

## **EKINTZAK:**

### **Pertsonen mugikortasuna ikasketengatik**

Ikaskuntza ez-formalaren eta informalaren arloko jarduerak egiten dituzten gazteen mugikortasuna programaren barneko herrialdeetan; mugikortasun hori izan daiteke gazteen trukea eta boluntariotza (Europako Boluntariotza Zerbitzuaren bidez), eta mugikortasunari buruzko xedapenetan ezarrita ez dauden jarduera berritzaileak.

Gazte-monitore gisa edo gazte-taldetan lan egiten duten pertsonen eta gazteen buruzagien mugikortasuna; mugikortasun hori prestakuntza-jarduerak eta sareko lana izan daiteke.

### **Berrikuntzarako eta jardunbide egokiak partekatze lankidetzak**

Elkartze estrategikoak, ekimen bateratuak garatu eta abian jartzeko; barnean sartzen dira gazteen ekimenak eta hiritarren proiektuak, hiritartasuna aktiboa, gizarte-berrikuntza, bizitza demokratikoan parte hartzea eta enpresa-izpiritua sustatzen dutenak, berdinen arteko ikaskuntzaren eta esperientzien trukearen bidez.

Informatika-arloko laguntza emateko plataformak; horiek sustatuko dute berdinen arteko ikaskuntza, ezagutzan oinarrituriko gazteen arloko lana, mugikortasun birtuala eta jardunbide egokien trukeak.

### **Politiken berrikuntzari babesa**

Batasunaren agenda politikoa ezartzea gazteriaren arloan.

Programaren barneko herrialdeetan kualifikazioak aitortzeko eta gardentasunerako Batasunaren tresnak ezartzea, bereziki Youthpass tresna, eta Batasuneko sareei eta GKEei babesa ematea Europako gazteriaren arloan.

Europako alderdi interesdunekiko elkarrizketa politikoa, eta elkarrizketa egituratua gazteekin.

Gazteen Europako Foroa, gazteen arloan lana egiteko baliabide-zentroak eta Eurodesk sarea.

### **INFORMAZIO GEHIAGO:**



## HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA KIROLA. ERASMUS + PROGRAMA 2014-2020. KIROLA

**GAIA:** Hezkuntza, Prestakuntza eta Kirola. Erasmus + 2014-2020.  
Kirola.

---

### **ERAKUNDEA:**

Education, Audiovisual and Culture Executive Agency (EACEA)

[https://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/contact/european-commission\\_es](https://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/contact/european-commission_es)

---

### **HELBURUAK:**

Kirolaren esparruan berariazko helburu hauek lortu nahi dira:

- Kirolaren zuzentasunari kalte egiten dioten mugaz gaindiko mehatxuen kontra borroka egitea; mehatxu horiek dira, adibidez, dopina, partidetan iruzurrak egitea eta indarkeria, bai eta intolerantzia- eta diskriminazio-mota guztiak ere.
- Kiroletan eta kirolarien karrera dualetan gobernantza ona sustatu eta babestea.
- Kiroletan boluntariotzako jarduerak sustatzea, bai eta gizarteratzea, aukera-berdintasuna eta osasunerako mesedegarriak diren jarduera fisikoen garrantziari buruzko sentsibilizazioa ere; horretarako, kiroletan gehiago parte hartzea sustatuko da eta guztiek sarbide bera izatea jarduera horretara.

---

### **EKINTZAK:**

Lankidetzaren helburuak nazioz gaindiko jarduera hauen bidez lortuko dira (jarduera horiek batez ere oinarritzko kirolean bildu behar dira):

Lankidetzan diharduten elkarteei laguntza ematea.

Irabazi-asmorik gabeko Europako kirol-ekitaldiei babesa ematea, ekitaldi horietan programaren barneko hainbat herrialdek parte hartzen dutenean.

Politikak egiteko oinarri empirikoa indartzeari babesa ematea.

Europako alderdi interesdunekin elkarrizketa.



## INFORMAZIO GEHIAGO:





**5** *Enplegua*

## **EASI ENPLEGU ETA GIZARTE-BERRIKUNTZARAKO EUOPAR PROGRAMA 2014-2020**

**GAIA:** Enplegua eta gizarte-berrikuntza 2014-2020

---

### **ERAKUNDEA:**

Europako Batzordea

Enplegu, Gizarte Gai eta Aukera Berdintasunerako ZN

ZN EMPL /B.1. J-54 01/004

Rue de Loi, 200

B-1049 - Brusela

[empl-vp-industrial-relations@ec.europa.eu](mailto:empl-vp-industrial-relations@ec.europa.eu)

---

### **HELBURUAK:**

Programaren helburua da enpleguaren sorrera, gizarte-politika eta mugikortasuna sustatzea Europar Batasunean barrena; arreta berezia jarriko zaie talde ahulei, adibidez gazteei.

Zehazki, programaren esparruan kalitatezko enplegua eta iraunkorra sortzea sustatuko da, gizarte-babes egokia eta duina bermatzea, gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia-aren aurka borroka egitea eta lan-baldintzak hobetzea.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

EASI Enplegu eta Gizarte-berrikuntzarako Europar Programa EBko finantza-tresna bat da, eta haren helburua da ugari sortzea kalitatezko enplegua eta iraunkorra; enplegu horrek gizarte-babes egokia eskainiko du, gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia-aren kontra egingo du eta lan-baldintzak hobetuko ditu.

---

## **EKINTZAK:**

Programak 3 ardatz ditu:

**Progress** ardatza: EBko politikak eta tresnak garatu, ezarri, jarraitu eta ebaluatzea babestuko du enpleguaren arloan, bereziki gazteen langabeziaren kontra borroka egiteko, gizarte-babeserako, gizarteratzeko eta pobrezia murriztu eta prebenitzeko, eta lan-baldintzak hobetzeko. Hori horrela, jarduera hauek finantzatuko dira, besteak beste: analisi-jarduerak (datuak jasotzea, estatistikak, metodologiak garatzea, inkestak, azterketak, ebaluazioak, etab.); elkarrengandik ikasteko, sentsibilizatzeko eta zabalkuntzarako jarduerak (jardunbide egokien trukeak, hitzaldiak, mintegiak, profesional juridikoak eta politikoak prestatzea, informazio- eta komunikazio-jarduerak, etab.); eta babesa ematea sareen funtzionamendu-gastuei, administrazioen gaitasunak indartzea, lan-taldeak antolatzea, sareak sortzea, etab.

**EURES** ardatza: Europar Batasunean pertsonen mugikortasuna modu bidezkoan sustatzeko eta mugikortasunaren arloko oztopoak kentzeko ekintzak. Zehazki esateko, EURES ardatzeko mugaz gaindiko elkarrengandik garapena eta jarduerak finantzatuko dira; mugaz gaindiko informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematea eta langileak lanean jartzea eta kontratatzea; plataforma digital eleanitza garatzea enplegu-eskaintzak eta -eskariak orekatzeko; berariazko mugikortasun-planak garatzea; EURES ardatzeko eragileek elkarrengandik ikastea eta EURES aholkularien prestakuntza, informazio- eta komunikazio-jarduerak.

**Mikrofinantzaketa eta gizarte-ekintzailletza** ardatza: finantzaketa eskuragarri jartzen die pertsona fisiko eta juridikoei.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**



## EUROPAKO GIZARTE-FUN TSA (EGF) 2014-2020

**GAIA:** Enplegua eta gizarte-gaiak 2014-2020.

---

### **ERAKUNDEA:**

#### **Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa**

Europako Gizarte Funtsa Administrazio Unitatea

3 4 91 363 18 00

[uafse@meys.es](mailto:uafse@meys.es)

---

### **HELBURUAK:**

Europako Gizarte Funtsa da Europak duen tresna nagusia enplegu-sorrera babesteko, pertsonen lanpostu hobeak lortzen laguntzeko eta lan-aukera bidezkoagoak bermatzeko EBko herritar guztientzat. Horretarako, EGF funtsak Europako giza kapitalean inbertitzen du: langile, gazte eta enplegu bila dabiltzan guztietan.

Europako Batzordeak, estatu kideek eta eskualdeek ezartzen dituzte, elkarrekin batera, EGF funtsaren lehentasunak, eta erabakitzen dute haren baliabideak nola erabili; hori Programa Operatiboak deitzen direnetan islatzen da. Proiektuak ez dira zuzenean Bruselatik finantzatzen. Zehazki esateko, 2014-2020 aldirako Euskadik bere programa operatiboa dauka.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Europako Gizarte Funtsa (EGF) EBko egiturazko funtsetako bat da; EBko eskualdeen eta estatu kideen artean aberastasunaren eta bizitza-mailaren arloan dauden desberdintasunak murrizteko sortu zen, eta, beraz, gizarte-kohesioa eta kohesio ekonomikoa sustatzeko helburua dauka. EGF funtsaren helburua EBn enplegua sustatzea da.

Estatu kideei laguntza ematen die Europako enpresak eta biztanle aktiboak hobeto prestatuta egon daitezen globalizazioaren erronka berriei aurre egiteko:

- Funtsak banatzen dira eskualdeen eta estatu kideen artean, bereziki garapen ekonomikorik txikiena dutenei zuzenduta.
- EBko hazkunde eta enplegurako strategiaren funtsezko osagaia da, eta helburu du EBko herritarrei prestakuntza hobea eta aukera profesional hobeak eskaintzea, horrela haien bizitza-maila hobetzeko.
- 2007-2013 aldian 75.000 milioi euro inguru banatu ziren EBko eskualdeen eta estatu kideen artean, helburu estrategiko horiek lortzen laguntzeko.

---

## **EKINTZAK:**

Enplegua eta mugikortasuna sustatzea. EGF funtsaren helburua da Europako herritarrei lan-aukera hobeak eskaintzea eta aukeratzen dituzten karrera profesionaletan arrakasta izan dezaten laguntzea. Enplegua sustatzeko ahaleginak sektore eta pertsona-talde guztiei zuzentzen zaizkie; hala ere, zailtasunik gehien dituzten taldeetan jartzen da jomuga, arlo hauetan, besteak beste:

Lana lortzeko bide berriak.

Aukera gehiago gazteentzat.

Laguntzak enpresentzat.

Ibilbide profesional hobeak.

Hezkuntza osoagoa. EGF funtsak ekimenak finantzatzen ditu EB guztian hezkuntza eta prestakuntza hobetzeko, bermatzeko gazteek beren prestakuntza-zikloa osatzen dutela eta lan-merkatuan lehiakorragoak izateko gaitasunak eskuratzen dituztela. Hori horrela, lehentasun nagusia eskola-uztearen tasa murriztea da, eta lanbide-prestakuntzarako eta goi-mailako hezkuntzarako aukerak hobetzea.

Aukerak guztientzat. Milaka proiektu finantzatzen dira, zailtasunak dituzten edo baliabide gutxiko pertsonen laguntza emateko gaitasunak garatzen, enplegua lortzen eta gainerakoek dituzten aukera berak izaten. Arlo horretan lau lehentasun daude:

Marjinazioaren kontra borroka egitea.

Gizarte-enpresen sorrera babestea, enplegu-iturri gisa.

Tokiko elkarteak babestea, irtenbideak identifikatu eta ezartzeko masa kritikoa sortzeko.

Ikuspegi inklusiboak, inklusio aktiboko neurriak, enplegua lortzen laguntzen duten neurriak.

Zerbitzu publikoak hobetzea: karga burokratikoak eta administratiboak murriztea, eta gardentasun- zuzentasun- eta erantzukizun-maila altua sustatzea administrazio publikoan.

### **INFORMAZIO GEHIAGO:**



## GAZTE-BERMERAKO FUNTSA 2014-2020

**GAIA:** Enplegua eta gizarte-gaiak 2014-2020

---

### **ERAKUNDEA:**

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Agustín de Bethencourt, 4

28071 Madril

34 91 363 01 04

[gprensa@meyss.es](mailto:gprensa@meyss.es)

---

### **HELBURUAK:**

Gazte-bermerako funtza gazteen langabeziaren kontra borroka egiteko ekimen berria da. Ekimen horrek bermatzen du 25 urtetik beherako gazte guztiek, enplegu-zerbitzuetan izena emanda egon ala ez, eskaintza konkretu bat eta kalitate onekoa jasoko dutela, prestakuntza amaitu edo langabezia-aldia hasi eta lau hilabeteko epean. Eskaintza hori izan daiteke lan bat, praktika-aldi bat, enpresa batean prestakuntza edo ikastetxe batean ikastaro bat, eta norberaren beharretara eta egoerara egokitu beharko litzateke. Estatu kideek beren estrategiak hartu behar dituzte gazteen langabeziari aurre egiteko; izan ere, langabezia horrek ezaugarri bereziak ditu estatu bakoitzean.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Enplegugarritasuna hobetzeko, lan-munduan sartzea errazteko, ekintzailletza sustatzeko eta lan-merkatuan duten egoera hobetzeko jarduerak sartzen dira.

Hori bideratzeko, strategiaren barnean 100 neurri daude gazteak lanean sartzea errazteko, bai besteren kontura bai ekintzailtzaren bidez. Gazteentzako Enplegu eta Ekintzailletza Estrategiak (hemen sartzen da Gazte-bermerako funtza) neurrien katalogo bat ezartzen du, eta neurri horiek gazteen profiletara egokituta daude.



Aurreikusiriko neurriak lau jarduera-ildo nagusitan egituratzen dira:

Bitartekaritza hobetzea.

Enplegugarritasuna hobetzea.

Kontratazioa sustatzea.

Ekintzailtza sustatzea.

---

## **EKINTZAK:**

2013-2016 aldirako Gazteentzako Espainiako Enplegu eta Ekintzailtza Estrategiak 100 neurri ditu, gazteen lan-munduratzeari errazteko, bai besteren kontura bai ekintzailtza bidez. Neurri horiek beren eraginaren eta garatzeko denboraren arabera sailkatzen dira.

Alde batetik, berehalako eragina duten edo premiazkoak diren 15 neurri sartzen dira; neurri horiek epe motzera izango dute eragina, kontratazioa eta ekintzailtza, hezkuntzaren eta prestakuntzaren hobekuntza eta lan-merkatuko bitartekotza sustatzeko. Bestalde, epe ertainera eta luzera eragina duten 85 neurri ezartzen dira; jarduera horiek denbora gehiago behar dute garatzeko, eta horien bidez gazte-enpleguan eragina duten egiturazko arazoei egin nahi zaie aurre.

Horien artean daude gazteek jasotzen duten hezkuntza eta prestakuntza lan-merkatuaren benetako beharretara egokitzera bideraturiko jarduerak, eta enplegua bilatzerakoan gazteek jasotzen duten orientabidea, laguntza eta informazioa hobetzearekin loturiko jarduerak; era berean, kontratazioa sustatzeko eta lan-mundura sartzeko malgutasuna eta aukera-berdintasuna bideratzeko beste neurri batzuk ere sartzen dira.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**



## BALIABIDE GUTXIKO PERTSONENTZAKO LAGUNTZA-FUNTSA 2014-2020

**GAIA:** Enplegua eta gizarte-gaiak 2014-2020

---

**ERAKUNDEA:**

Europako Batzordea. Enplegu, Gizarte Gai eta Gizarteratzeko ZN  
B-1049 Brusela  
BELGIKA

---

**HELBURUAK:**

Funts honen helburua da gizarte-kohesioa sustatzea, gizarteratzea indartzea eta pobrezia desagerraraztea Europar Batasunean.

Funts honek EGF funtsa eta Egiturazko Funtsak osatzen ditu, eta pobrezia-modurik okerrenak zuzentzeko helburua lortzen laguntzen du. Horretarako, finantza-arlokoa ez den laguntza ematen die baliabide gutxien dituzten pertsonei, elikagaiak eta/edo oinarritzko laguntza materiala eta gizarteratzeko jarduerak; jarduera horiek baliabide gutxien dituzten pertsonak gizarteratzeko dira, eta horietan sartzen dira baliabide gutxi dituzten gazteei zuzenduriko jarduerak.

Estatu kide bakoitzak bere programa operatiboa egin behar du, eta hor zehaztu beharko ditu baliabide gutxien dituzten pertsonei elikagaiak eta/edo oinarritzko laguntza emateko egingo dituen jarduerak; jarduera horiek estatu kideek aukeraturiko erakunde elkartuen bidez egingo dituzte.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Funtsak gizarte-kohesioa sustatuko du, gizarteratzea indartuko du, eta, beraz, azken batean Europar Batasunean pobrezia desagerrarazteko helburua lortzen lagunduko du. Funtsak laguntza emango du pobrezia-modurik okerrenak konpontzeko helburua lortzeko garaian, finantza-arlokoa ez den laguntza emanez baliabide gutxien dituzten pertsonei: elikagaiak eta/edo oinarritzko laguntza materiala emango dizkie, eta gizarteratzeko jarduerak, baliabiderik gutxien dituzten pertsonak gizarteratzeko.

---

## **EKINTZAK:**

Jendeak emaniko elikagaiak jaso, garraiatu, bildu eta banatzea.

Elikagaien eta/edo oinarrizko laguntza materialaren hornikuntza osatzeko neurriak.

Baliabide gutxien dituzten pertsonak gizarteratzen laguntzeko jarduerak.

Behar gehien duten pertsonen finantza-arlokoa ez den laguntza materiala emateko ekintzak; laguntza hori era askotakoa da, besteak beste, elikagaiak, arropa eta beraiek erabiltzeko beste funtsezko gai batzuk, adibidez, oinetakoak, xaboia edo xanpua. Laguntza materiala banatzearekin batera gizarteratzeko neurriak egongo dira, pertsona horiei pobreziatik ateratzen laguntzeko orientabide eta babes gisa.

Baliabide gutxien dituzten pertsonen emaniko finantza-arlokoa ez den laguntzaren barnean, funts honek sustatuko du, EB mailan, elkarrengandik ikastea, sareak ezartzea eta jardunbide egokiak zabaltzea.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**



## GLOBALIZAZIORA EGOKITZEKO EUROPAKO FUNTSA 2014-2020

**GAIA:** Enplegua eta gizarte-gaiak 2014-2020

---

### **ERAKUNDEA:**

Europako Gizarte Funtza Administrazio Unitatea (EGFAU)

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Pío Baroja kalea, 6. zk., 1. solairua

28009 - Madril

34 913 632 065

[ggarciagp@meys.es](mailto:ggarciagp@meys.es)

---

### **HELBURUAK:**

GEEF funtsaren helburua da hazkunde ekonomiko adimentsu, integratzaile eta iraunkorra sustatzen laguntzea eta enplegu iraunkorra sustatzea Batasunean. Horrela, Batasunak elkartasuna eta babesa eskaini ahal izango die kaleratuak izan diren langileei eta beren kontura lan egin eta jarduera utzi duten langileei; egoera horien oinarrian daude egiturazko aldaketa handiak eta munduko merkataritzaren erduetan izaniko aldaketa handiak, globalizazioaren eta munduko finantza- eta ekonomia-krisiak jarraitzearen ondorioz.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Globalizaziora Egokitzeko Europako funtsak (GEEF funtsak) laguntza ematen die munduko merkataritzaren erduetan izaniko egiturazko aldaketa handien ondorioz enplegua galdu duten langileei. Aldaketa horiek eragin dituen globalizazioa da (adibidez, enpresa handiak ixtea edo ekoizpena EBtik kanpora lekualdatzea) edo munduko ekonomia- eta finantza-krisia.

---

### **EKINTZAK:**

GEEF funtsaren finantza-ekarpena xede duten ekintzen helburua izango da bermatzea ekintza horietan parte hartzen duten ahalik eta onuradun gehienek enplegu iraunkorra aurkitzen dutela ahalik eta azkarren.

GEEF funtsaren finantza-ekarpena egin ahal izango zaie zerbitzu pertsonalizatuen multzo koordinatu bat osatzen duten enplegurako neurri aktiboei. Neurri horiek, aurrez zehazturiko onuradunak (bereziki baliabide gutxiko langabetuak, helduak eta gazteak) beren kontura edo besteren kontura lanpostu batean sartzeko diseinatu dira. Zerbitzu pertsonalizatuen multzo koordinatuak osagai hauek izan ditzake:

Neurrira egokituriko prestakuntza eta birziklatzea, barnean sartuz informazio- eta komunikazio-teknologietako gaitasunak eskuratzea, eta lorturiko esperientzia ziurtatzea, enplegua bilatzen laguntza ematea, lanbide-arloko orientabidea, aholkularitza juridikoa eta tutoretza.

Iraupen mugatuko neurri bereziak, adibidez, enplegua bilatzeko prestazioak, kontratazioa sustatzeko enplegataileentzako pizgarriak, egonaldiengatiko prestazioak edo prestakuntza-subsidioak.

Bereziki baliabide gutxiko langabetuak, helduak eta gazteak, lan-merkatuan mantentzeko edo bertan sartzeko neurriak.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**



6

# *Berrikuntza eta ikerketa*

## HORIZON 2020 PROGRAMA 2014-2020

**GAIA:** Berrikuntza, ikerketa eta lehiakortasuna

---

**ERAKUNDEA:**

Industria eta Teknologiaren Garapenerako Zentroaren (ITGZ)

Europako Bulegoa

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

34 91 603 79 84

[h2020@oficinaeuropea.es](mailto:h2020@oficinaeuropea.es)

---

**HELBURUAK:**

Europar Batasunak bere ikerketa- eta berrikuntza-jardueren zati handi bat Esparru Programan biltzen du, eta programa hori Horizon 2020 deitzen da 2014-2020 aldirako. Horretarako, hiru ardatz ezartzen ditu, gizarte-erronka nagusiei aurre eginez, industria-lidergoa sustatuz Europan eta bere oinarri zientifikoaren bikaintasuna indartuz.

Horizon 2020 programak fase guztiak hartzen ditu lehenengo aldiz, hasi ezagutza sortzetik eta merkatutik gertuen dauden jardueretaraino: oinarrizko ikerketa, teknologien garapena, demostrazio-proiektuak, fabrikazioko linea pilotuak, gizarte-berrikuntza, teknologiaren transferentzia, kontzeptu-probak, normalizazioa, merkataritza aurreko erosketa publikoei laguntza, arrisku-kapitala eta berme-sistema.

---

### PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:

Horizon 2020 programak jarduera hauek biltzen eta indartzen ditu: 2007-2013 aldian Ikerketa eta Garapenaren arloko VII. Esparru Programak finantzatzen zituen jarduerak, Berrikuntzarako eta Lehiakortasunerako Esparru Programaren (CIP) berrikuntza-ekintzak eta Europako Berrikuntza eta Teknologi Institutuaren (EIT) ekintzak.

Programaren helburua da “Europa 2020” estrategia eta “Berrikuntzarako Batasuna” ekimen esanguratsua ezartzen laguntzea; horrela, zuzeneko laguntza emango du gizarteko erronka nagusiei aurre egiteko, Europan industria-lidergoa sortu eta horri eusteko eta oinarri zientifikoaren bikaintasuna indartzeko, funtsezkoa baita epe luzera Europaren iraunkortasuna, aberastasuna eta ongizatea lortzeko.

---

## **EKINTZAK:**

**I. ardatza. BIKAINASUNA ZIENTZIAN.** Helburua da bikaintasunaren zientzia sortzea, EBren posizioa indartzeko munduko zientziaren esparruan. Horretarako, modu esanguratsuan areagotuko da Ikerketako Europako Batzordearen (ERC) zuzkidura, maila altueneko europar ikerlariei diru-laguntzak ematen dizkiena, nazioarteko partzuergoan jardutea derrigorrezkoa izan gabe; era berean, etorkizuneko teknologien esparrua zabalduko da, sektore guztiak kontuan hartuz.

Marie Curie jarduerari eutsi egiten zaie, ikerlarien prestakuntza, mugikortasuna eta kualifikazioa, baita ikerketa-azpiegiturak ere babesteko.

**II. ardatza. INDUSTRIA-LIDERGOA.** Industriarako funtsezkoak diren teknologien bertsio garrantzitsuak ditu, adibidez, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT), nanoteknologiak, fabrikazio aurreratua, bioteknologia eta espazioa. Ardatz honetan ETEentzako jarduerak nabarmentzen dira; horiek gizarte-erronken eta teknologien inguruko lankidetzaproiektuetan har dezakete parte, eta horretarako finantzaketa-helburu gisa jartzen da gutxienez aurrekontuaren % 20. Horrez gain, enpresa horiek “ETE tresna” deiturikoa dute beren eskura. Tresna horren bidez finantzatu daitezke: kontzeptuaren ebaluazioa eta garapenerako bideragarritasuna; merkaturatu frogatu eta erreplika egitea, eta, horrez gain, merkaturatzeko laguntza ere sar daiteke, emaitzen ustiaketari etekina ateratzeko zerbitzuekin batera. Tresna hori botton-up motakoa da, gutxieneko partzuergorik gabe, eta Europako dimentsioa duen berrikuntzaproiektu baten bidez hazteko eta nazioartekotzeko helburua duten ETEei (tradizionalei edo berritzaileei) laguntzea du helburu.



**III. ardatza. GIZARTE-ERRONKAK.** Bizitza hobea izateko funtsezkoak diren sei arlotan oinarritzen da arreta: osasuna, elikadura eta nekazaritza (itsas zientziak barne), energia, garraioa, klima eta lehengaiak, gizarte inklusiboak eta segurtasuna. Eraitzen helburua herritarren arazo zehatzak konpontzea da, adibidez gizartearen zahartzea, babes informatikoa edo ekonomia eraginkor eta karbono gutxikora igarotzea.

**Gai HORIZONTALAK:**

Zientzia gizarterako.

Bikaintasuna zabalduz eta partaidetza areagotuz.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**





# 7 *Ingurumena*

## LIFE INGURUMEN-PROGRAMA 2014-2020

**GAIA:** LIFE Ingurumen Programa 2014-2020

---

### **ERAKUNDEA:**

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa

LIFE+ Espainiako Bulegoa

San Juan de la Cruz plaza, z/g 28071 - Madril

34 915 976 076

[mtb@mma.es](mailto:mtb@mma.es)

Europako Batzordea

Ingurumen ZN DG ENV.E.4 BU-9 02/1

Avenue de Beaulieu 5

B-1049 - Brusela

32 2 292 17 87

---

### **HELBURUAK:**

- Baliabideen erabilera eraginkorra, karbono gutxikoa eta klima-aldaketarekiko erresilientea den ekonomiara igarotzen laguntzea eta ingurumenaren babesa eta hobekuntza bideratzea; era berean, bioaniztasunaren galera geratu eta buelta ematen laguntzea, barnean sartuz Natura 2000 sareari emaniko babesa eta ekosistemen degradazioari aurre eginez.
  - Batasunaren ingurumenaren eta klimaren arloko politika eta legeen garapena, ezarpena eta gauzatzea hobetzea, eta ingurumenaren eta klimaren arloko helburuak Batasunaren beste politika batzuetan eta sektore publiko eta pribatuen jardunbideetan sartzeko bideak egitea, gainera, haien ahalmena areagotuz.
-



- Ingurumenaren eta klimaren arloko gobernantza hobea sustatzea maila guztietan, barnean sartuz gizarte zibilaren, GKEen eta tokiko eragileen partaidetza handiagoa.
- Ingurumen arloko VII. Ekintza Programa ezartzen laguntzea.

---

## PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:

Ingurumenaren eta klimaren aldeko programa (LIFE) da ingurumenaren aldeko Europar Batasunaren finantza-tresna 2014-2020 aldirako. Haren helburu nagusia da politiken garapenean eta ezarpenean aldaketak bideratzea, ingurumenaren eta klimaren arloko helburuak lortzeko irtenbideak eta jardunbide egokiagoak eskainiz eta teknologia berritzaileak sustatuz ingurumenaren eta klima-aldaketaren arloan. Era berean, Batasunaren Ingurumen arloko politika orokorraren ezarpena babestu behar du 2020ra arte.

LIFE programa Europako Batzordeak kudeatzen du, eta Espainiako estatuan Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa da agintaritza nazionala, Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren bidez.

---

## EKINTZAK:

### INGURUMENAREN AZPIPROGRAMA

#### **Ingurumena eta eraginkortasuna baliabideak erabiltzeko orduan**

Politikak edo kudeaketa egiteko ikuspuntuak, jardunbide egokiagoak eta konponbideak garatu, saiakuntzak egin eta frogatzea, barnean sartuz ingurumen-erronketarako teknologia berritzaileak garatu eta frogatzea ere.

Batasunaren ingurumen-politika eta -legeekin bat planak eta programak aplikatzeko ikuspegi integratuen aplikazioa, garapena, saiakuntza eta demostrazioa babestea, nagusiki, uraren, hondakinen eta airearen eremuetan.

Ezagutzen oinarria hobetzea, Batasunaren ingurumen-politika eta -legeak garatu, aplikatu, baloratu, jarraitu eta ebaluatzeko, baita Batasunaren kanpoko eta barneko ingurumenean eragiten duten faktoreak, presioak eta erantzunak ebaluatu eta jarraitzeko ere.

### **Natura eta bioaniztasuna**

Naturaren eta bioaniztasunaren eremuan Batasunaren politika eta legeak garatu eta ezartzen laguntzea.

Natura 2000 sarea garatzen, ezartzen eta kudeatzen laguntzea.

Ezagutzen oinarria hobetzea, naturaren eta bioaniztasunaren eremuetan Batasunaren ingurumen-politika eta -legeak garatu, aplikatu, baloratu, jarraitu eta ebaluatzeko, baita Batasunaren kanpoko eta barneko natura eta bioaniztasunean eragiten duten faktoreak, presioak eta erantzunak ebaluatu eta jarraitzeko ere.

### **Ingurumen-gobernantza eta -informazioa**

Ingurumenaren arloan kontzientziazioa eta garapen iraunkorrari eta kontsumo iraunkorrerako eredu berriei buruzko ezagutza sustatzea.

Ingurumenaren arloan komunikazioa, kudeaketa eta informazioaren hedapena bultzatzea eta ezagutzen erabilera partekatua erraztea ingurumen arloko irtenbide eta jardunbide arrakastatsuen inguruan.

Ingurumenaren arloan Batasuneko legeak eraginkortasunez bete eta gauzatzeko laguntzea eta hori sustatzea, bereziki, jardunbide eta ikuspegi politiko egokiagoak garatuz eta zabalduz.

Ingurumen-gobernantza hobea sustatzea eta, horretarako, alde interesdunen (GKEak barne) partaidetza bultzatzea politiken inguruko kontsultetan eta horiek aplikatzeko orduan.

## **KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN AZPIPROGRAMA**

### **Klima-aldaketa arintzea**

Klima-aldaketa arintzearen arloan Batasunaren politika eta legeak ezartzen eta garatzen laguntzea.

Ezagutzen oinarria hobetzea, klima-aldaketa arintzeko neurri eta ekintza eraginkorrak garatu, baloratu, jarraitu, ebaluatu eta ezartzeko.

Ikuspegi integratuen garapena eta ezarpena erraztea, adibidez, klima-aldaketa arintzeko tokiko, eskualdeko edo nazioko estrategia eta planetan.

Klima-aldaketa arintzeko teknologia, sistema, metodo eta tresna berriztatzaileak garatzen eta frogatzen laguntzea.

### **Klima-aldaketara egokitzea**

Klima-aldaketara egokitzearen arloan Batasunaren politika garatzen eta ezartzen laguntzea.

Ezagutzen oinarria hobetzea, klima-aldaketara egokitzeo neurri eta ekintza eraginkorrak garatu, baloratu, jarraitu, ebaluatu eta ezartzeko.

Ikuspegi integratuen garapena eta ezarpena erraztea, adibidez, klima-aldaketara egokitzeo tokiko, eskualdeko edo nazioko estrategia eta planetan.

Klima-aldaketara egokitzeo teknologia, sistema, metodo eta tresna berriztatzaileak garatzen eta frogatzen laguntzea.

### **Klimaren arloko gobernantza eta informazioa**

Klimaren arloan sentsibilizazioa sustatzea.

Klimaren arloan komunikazioa, kudeaketa eta informazioaren hedapena bultzatzea eta ezagutzen erabilera partekatua erraztea klimaren arloko irtenbide eta jardunbide arrakastatsuen inguruan.

Klimaren arloan Batasuneko legeak eraginkortasunez bete eta gauzatzen laguntzea eta hori sustatzea.

Klimaren arloko gobernantza hobea sustatzea, eta, horretarako, alde interesdunen (GKEak barne) partaidetza bultzatzea politiken inguruko kontsultetan eta horiek aplikatzeko orduan.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**



**GAIA:** Ingurumena 2014-2020

---

### **ERAKUNDEA:**

Europako Batzordea  
Ingurumen ZN  
DG ENV.B. Finantza-zelula BU-9 04/195  
Rue de la Loi, 200 B-1049 - Brusela  
32 2 299 22 48

Barne Ministerioa  
Babes zibil eta Larrialdietarako Zuzendaritza Nagusia  
Quintillano kalea, 21  
28002 Madril  
34 915 373 100  
[dgpc@proteccioncivil.org](mailto:dgpc@proteccioncivil.org)

---

### **HELBURUAK:**

Batasuneko Babes zibilerako mekanismoaren helburua da Batasunaren eta estatu kideen arteko lankidetzaren indartzea eta babes zibilaren arloan koordinazioa erraztea, modu horretan prebentzio, prestakuntza eta erantzunaren arloko sistemen eraginkortasuna hobetzeko hondamendi naturalen edo pertsonen eragindako hondamendien aurrean.

Babesaren barnean pertsonak sartuko dira bereziki, baina baita ingurumena eta ondasunak ere, kultura-ondarea barne, mota orotako hondamendi naturalen edo pertsonen eragindako hondamendien aurrean; barnean sartzen dira Batasunaren barnean edo kanpoan gertatzen diren terrorismo-ekintzen ondorioak, hondamendi teknologikoak, erradiologikoak edo ingurumen-arlokoak, itsasoaren kutsadura eta osasun-arloko larrialdi handiak.

---

## **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Herrialde batek hondamendi bat jasan eta horrek bere erantzuteko gaitasuna gainditzen badu, Europako herrialdeek laguntza eman dezakete, EBko babes zibilerako mekanismoaren bidez. Mekanismo horri esker, azkarrago eta modu eraginkorragoan erantzuteko aukera dago larrialdien aurrean, hondamendia jasan duen herrialdera eta herritarrengana babes zibilerako ekipamenduak eta aktiboak bidaltzea koordinatuz. Munduko edozein herrialdek eska diezaioke laguntza EBko babes zibilerako mekanismoari.

---

## **EKINTZAK:**

Hondamendien aurreko prebentzioa, prestakuntza eta erantzunaren eraginkortasuna hobetzeko neurri orokorrak: azterketak, inkestak, prestakuntza, tailerrak, jarraipen-eta analisi-neurriak, etab.

Prebentzio- eta prestakuntza-neurriak: proiektuak, azterketak, tailerrak, ebaluazioak, mobilizatzeko prestakuntza eta adituen taldeak bidaltzea, etab.

Erantzuna emateko neurriak: adituen taldeak bidaltzea, hondamendien kasuan estatu kideei laguntza ematea ekipamenduak eta garraio-baliabideak eskuratzeko, neurri osagarriak hartzea, etab.

Ekipamenduarekin eta garraio-baliabideekin loturiko neurriak: ekipamenduen eta garraio-baliabideen hornikuntza eta horiei buruzko informazio-trukea, beharrezko baliabideen finantzaketa hondamendien kasuan azkar erantzutea bermatzeko, etab.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**







8 *Osasuna eta kontsumoa*

## HAZKUNDERAKO OSASUN-PROGRAMA 2014-2020

**GAIA:** Osasun publikoa eta kontsumoa 2014-2020

---

### **ERAKUNDEA:**

Europako Batzordea

Osasunerako eta Kontsumitzaileen Babeserako Zuzendaritza

Nagusia

C1 Unitatea

Jean Monnet eraikina JMO - C5/108 bulegoa

Rue Alcide de Gasperi

L-2920 - Luxemburg

352-43 01 381 19

---

### **HELBURUAK:**

Programaren helburu nagusiak dira estatu kideen politikak osatu eta babestea, eta balio erantsia ematea, Batasuneko herritarren osasuna hobetzeko eta osasun-arloan dauden desberdintasunak murrizteko; horretarako, osasuna sustatuko da, osasungintzaren arloan berrikuntza bideratuko da, osasun-sistemen iraunkortasuna areagotuko da eta herritarrak babestuko dira osasunaren kontrako mugaz gaindiko mehatxu larrien aurrean.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

2014-2020 aldirako osasunaren arloko EBko hirugarren ekintza-programaren proposamenak, Hazkunderako Osasun Programa deituak, hazkunde ekonomikoaren eta herritar osasuntsuen artean dauden loturak indartzen ditu eta aurreko programek baino gehiago nabarmentzen ditu. Programak lehentasuna ematen die europar balio erantsi argia duten ekintzei, Europa 2020 estrategiaren helburuekin eta egungo lehentasun politikoekin bat datozenak.

---

## **EKINTZAK:**

### **Osasuna sustatzea, gaixotasunak prebenitzea eta bizi-estilo osasungarriak errazten dituzten inguruneak sustatzea**

Sustatzeko eta prebenitzeko errentagarriak diren neurriak, alkoholari eta elikadurari buruzko Batasuneko estrategiekin bat.

Drogek osasunari eraginiko kalteak murrizteko estatu kideen ekintza osatzeko neurriak.

Gaixotasun kutsakorrei (GIBa/IHESa, tuberkulosia eta hepatitis a esaterako) aurre egiteko neurri eraginkorrak babestea.

Batasunaren barneko lankidetzak eta sareko lana babestea, gaixotasun kronikoak (esaterako minbizia, adinarekin loturiko gaixotasunak eta gaixotasun neurodegeneratiboak) prebenitu eta horiei emaniko erantzuna hobetzearen inguruan.

Tabakoaren produktuen, publizitatearen eta merkaturatzearen arloan Batasunaren legeak aplikatzeko edo aplikatzen laguntzeko beharrezko ekintzak.

Osasunari buruzko informazioaren eta ezagupenen sistema bat sustatzea.

### **Batasuneko herritarrak babestea osasunerako larriak diren mugaz gaindiko mehatxuetatik**

Arriskuaren ebaluazioa hobetzea.

Estatu kideen gaitasunak areagotzea osasunaren kontrako mehatxuei aurre egiteko.

Gaixotasun kutsakorren eta osasunaren aurkako beste mehatxu batzuen arloetan Batasunaren legeak aplikatzeko edo aplikatzen laguntzeko beharrezko ekintzak.

Frogaturiko datuetan oinarrituriko osasunari buruzko informazioaren eta ezagupenen sistema sustatzea, erabakiak hartzeko prozesuari laguntzeko.

### **Osasun-sistema berritzaile, eraginkor eta iraunkorrak bideratzea**

Estatu kideen arteko borondatezko lankidetzak sustatzea osasun-teknologiak ebaluatzearen arloan.

Osasunaren eta osasungintza elektronikoaren arloetan berrikuntza borondatez sartzeari laguntza ematea, arlo honetan pazienteen erregistroen eta gainerako aplikazio elektronikoen elkarreragingarritasuna areagotuz.

Osasungintzaren arloko langileen iraunkortasuna babestea, eta horretarako osasungintzaren arloko langileen plangintza eta aurreikuspen eraginkorrak sustatzea arlo hauetan: kopuruak, genero-berdintasuna, jarduera-esparrua eta prestakuntzen eta beharrezkoak diren gaitasunen arteko egokitzapena.

Estatu kideen eskura gaitasun espezializatuak jartzea, eta jardunbide egokiak partekatzea, modu horretan haiei laguntzeko beren osasun-sisteman berrikuntzak sartzen; horretarako, ezagupen espezializatuak partekatzeko mekanismo bat ezarriko da Batasunaren esparruan.

Populazioa zahartzeak berekin dakartzan osasun-arazoei aurre egiteko ekintzak babestea.

Osasun-produktu, botika eta mugaz gaindiko osasun-laguntzaren arloan Europako legeak aplikatzeko edo aplikatzen laguntzeko beharrezko ekintzak.

Frogaturiko datuetan oinarrituriko osasunari buruzko informazioaren eta ezagupenen sistema sustatzea, erabakiak hartzeko prozesuari laguntzeko.

### **Batasuneko herritarrek osasun-arreta hobea eta seguruagoa eskuragarriago izatea**

Erreferentziazko Europako sareen sistema bat ezartzen laguntzea, espezializazio-maila handiko osasun-arreta behar duten gaixoentzat.

Batasunaren esparruko ekintza koordinatuaren bidez, estatu kideen, gaixoen elkarleen eta alderdi interesdunen ekintza babestea, gaixotasun arraroak dituztenei modu eraginkorrean laguntzeko.

Lankidetzaren indartzea pazienteen segurtasun eta osasun-arretaren kalitatearen arloan. Antibiotikoak zeharrituz erabiltzearen arloa hobetzea eta horiekiko erresistentziak areagotzen dituzten jardunbideak murriztea.

Batasunaren legeak aplikatzeko edo aplikatzen laguntzeko beharrezko ekintzak, arlo hauetan: giza ehunak eta zelulak, odola, giza organoak, osasun-produktuak, botikak eta pazienteen eskubideak mugaz gaindiko osasun-arretan.

Frogaturiko datuetan oinarrituriko osasunari buruzko informazioaren eta ezagupenen sistema sustatzea, erabakiak hartzeko prozesuari laguntzeko.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**



## KONTSUMITZAILEEN PROGRAMA 2014-2020

**GAIA:** Kontsumitzaileen urte anitzeko programa 2014-2020

---

### **ERAKUNDEA:**

#### **Europako Batzordea**

Osasunerako eta Kontsumitzaileen Babeserako Zuzendaritza

Nagusia

Rue de Loi, 200

B-1049 - Brusela

[sanco.b1@ec.europa.eu](mailto:sanco.b1@ec.europa.eu)

---

### **HELBURUAK:**

Programak helburu hori lortzen lagunduko du, kontsumitzaileen osasuna, segurtasuna eta interes juridiko eta ekonomikoak babestuz, eta, era berean, informaziorako, heziketarako eta beren interesak babeste aldera antolatzen duten eskubidea sustatuz; gainera, interes horiek beste jarduera-eremu batzuetan sartzen lagunduko du.

---

### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:**

Programak helburu hori lortzen lagunduko du, kontsumitzaileen osasuna, segurtasuna eta interes juridiko eta ekonomikoak babestuz, eta, era berean, informaziorako, heziketarako eta beren interesak babeste aldera antolatzen duten eskubidea sustatuz; gainera, interes horiek beste jarduera-eremu batzuetan sartzen lagunduko du.

---

### **EKINTZAK:**

#### **1. helburua – Segurtasuna. Ekintzak.**

Kontsumitzailearen osasunaren eta segurtasunaren inguruko aholkularitza zientifikoa eta arriskuen azterketa, elikaduraren arlokoak ez diren zerbitzuei eta produktuei dagokienez.

Merkatuaren zaintza eta produktuen segurtasunaren arloko ekintzak koordinatzea, eta kontsumitzaileei emaniko zerbitzuen segurtasuna hobetzeko ekintzak egitea.

Kosmetikoei buruzko datu-baseak mantendu eta garatzea.

## **2. helburua - Kontsumitzaileen informazioa eta heziketa, eta kontsumitzaileen elkarteei babesa ematea. Ekintzak.**

Dokumentu-oinarri bat sortu eta oinarri horretarako sarbidea hobetzea; helburua izango da kontsumitzaileei eragiten dieten politikak garatzea, ondo zehazturiko helburuak dituen araudi adimentsua egitea, eta merkatuaren balizko disfuntzioak hauteman edo beharrak aztertzea.

Babesa ematea kontsumitzaileen elkarteak finantzatzuz, gardentasuna areagotuz eta jardunbide egokiagoen eta berariazko ezagutzen trukeak areagotuz.

Kontsumo-merkatuen gardentasuna eta kontsumitzaileari emaniko informazioa hobetzea.

Kontsumitzaileen heziketa hobetzea bizitza osoan barrena, bereziki, talde ahulen kasuan.

## **3. helburua - Eskubideak eta erreklamatzeko bideak. Ekintzak**

Batzordeak legeak eta beste ekimen arautzaile batzuk prestatzea kontsumitzaileak babestearen arloan, estatu kideek eginiko transposizioari jarraipena egitea eta ondorioak ebaluatzea.

Liskarrak konpontzeko sistemak eskuragarri jartzea kontsumitzaileentzat, bereziki sistema alternatiboak; arreta berezia jarriko zaie talde ahulenen beharrak eta eskubideak aintzat hartzen dituzten neurri egokiei. Liskarrak konpontzeko sistemen jarraipena eta funtzionamendua.

## **4. helburua - Ezarpena. Ekintzak**

Zaintza eta gauzatze-jarduerak koordinatzea.

Finantza-arloko laguntza, Europako sareetan dauden erakunde publikoekin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin neurri bateratuak hartzeko. Horiek informazioa eta laguntza emango diete kontsumitzaileei, beren eskubideak gauza ditzaten eta liskarrak behar bezala konpontzeko aukera izan dezaten.

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**

